

Lovecraft idazleari buruzko testua irakurri.

Egitekoa

Irakur ezazu artikulua, eta ondoren idatzi erantzunak beheko laukian, adibidean egiten den bezala.

— 2. testua —

Lovecraft

Dotoreago gelditze aldera, beharbada esan beharko nuke Michel Houellebecq-ek eskaini zion biografia txikiari esker ezagutu nuela, baina gezurra litzateke. Iron Maiden taldearen disko batek eman zidan haren lehendabiziko berria, zuzenean grabatutako disko bikoitz batek, hain juxtu ere. Azaleko marrazkian, zonbi bat bere hilobitik ateratzen; hilarrian, poesia lerro batzuk eta sinadura bat: H. P. Lovecraft.

Geroxeago liburuak ailegatu ziren. Lehenik, gaztelaniaz, Alianza argitaletxeak egindako edizioetan, eta ondoren, ingelesez, Penguinin eskutik.

Ipuinak idatzi zituen batez ere, eta nobela laburrak, eta bertan mundu berezia sortu zuen, izuaren eta zientzia-fikzioaren arteko mugan. Haren liburuetan badira espaziotik heldu diren formarik gabeko izaki beldurgarriak, huts egindako esperimendu izugarriak eta lur azpian bizi

diren antzinako zibilizazio ilunak. Euskal literaturan nekez aurkituko ditugun gauzak, alegia, literatura fantastikoa ez baita gehiegi egiten gure artean.

Edonola ere, orain badugu aukera Lovecraft euskaraz irakurtzeko, haren nobela bat argitaratu baitute berriki Literatura Unibertsala sailean, Aurora Ruiz Benitok euskaratuta: *Eromenaren Mendieta*n. Nik, akaso, beste bat hobetsiko nuen, *Charles Dexter Warden kasua*, adibidez, baina, tira, hori gustu kontua da.

Durangoko liburu berri guztiekin batera iritsi zaigu itzulpen hau, baina egile ezezagun samar baten lana izanik, genero baztertu batekoa, bada, pena litzateke behar duen arreta guztia lortuko ez balu. Nik, behinik behin, badut zer irakurria Eguberri hauetan.

Eta itzultzaileari, esker mila.

Santi Leone, moldatua,
(Berria, 2011-01-02)

Adibidea:

0. Zer aipatzen da Houellebecq-i buruz?

- a. Lovecraft-i buruzko biografia idatzi zuela.
- b. Oso dotore idazten zuela.
- c. Lovecraft-i esker ezagutu zuela kazetariak.

1. Zelan ezagutu zuen kazetariak Lovecraft?

- a. Disko baten azaleko hilarrian idatzirik zegoen olerki baten bidez.
- b. Disko baten azalean zegoen liburu baten izenburua ikusita.
- c. Disko baten grabazioan.

2. Nolakoak dira idazlearen lanak?

- a. Ulertzen zailak diren ipuinak eta zientzia-fikziozko nobelak.
- b. Beldur eta zientzia-fikzioaren mugakideak.
- c. Beldur eta izaki misteriozuz betetako olerkiak.

3. Zer aipatzen da gure literaturaz?

- a. Genero horrek maila gutxi duela.
- b. Neketsua dela genero hori lantzea.
- c. Ez dela erraza horrelako literatura-lanak aurkitzea.

4. Zein da "Eromenaren mendietan" izeneko liburua?

- a. Aurora Ruiz Benitok zuzentzen duen argitaletxeak eskaintzen duena.
- b. Duela gutxi euskaratu duten idazle atzerriar baten lana.
- c. Kazetariari gehien gustatzen zaiona.

5. Zein da kazetariaren beldurra?

- a. Eleberriak azokan aurkeztzen diren hainbat libururen lehia izatea.
- b. Azokako gainontzeko itzulpen-lanek adinako arretarik ez lortzea.
- c. Liburuak behar besteko harrera ez izatea.

6. Nori adierazten dio bere eskerrona kazetariak?

- a. Ruiz Benitori.
- b. Houellebecq-i.
- c. Lovecraft-i.

Aukera ezazu erantzun egokia eta jar ezazu dagokion letra ondoko laukietan

0.- A	1.-	2.-	3.-	4.-	5.-	6.-
-------	-----	-----	-----	-----	-----	-----